

## ESPAINIAKO GERRA ZIBILA

### Zergatiak, ezaugarriak eta garapena

#### SARRERA

Espainiako Gerra zibilak historiako garai eta gertakari lats eta garrantzitsuenetarikoa dugu, garai bati amaiera eman eta berri bati hasiera ematen diolarik.

#### ZERGATIAK

Zergatien inguru asko idatzi da. Eztabaida historiografiakotik arrazoi sinpleak behintzat baztertu dira, hots, altxamendua alderdietako ikuspegietatik bazterketak ekiditeko; edo komunismo, anarkia eta ateismoaren kontra; honengatik "altxamendu nazional goraiapatua", "gurutzada nazionala" zen. Beste aldetik argudioa faxisten altxamendua demokraziarekin amaitzeko, gizatalde atzerakoiek burutua, European zehar zabaltzen ari zen faxismoaren eredura, erran ohi da.

Sorreraren arrazoi sakonak direla oinarri bezala hartuz, bere testuinguru historikoan aurkitu behar ditugu zergatiak. Gerran, Espainiako gizarteak XIX. Mendetik errenka zituen arazoak modernizazioaren aurrean, 98ko krisiak areagotutakoa argi agertzen dira. 1909. 1917. eta 1921.eko krisialdiak, canovista sistema kolokan utziko dute, Primo de Rivera bezalako aukera militarra erakarriz, baina hau ere porrot egitean, eta geroko berrezartze demokratikoaren aukera (II Errepublikakoa) ere porrot egitean, zuzenean gerrara bideratuko du egoera.

Ikuspegi orokor honek bakarrik adierazgarria ez denez, inguru hurbilago batera jo behar dugu. Gerra Espainiako dinamika soziala eta politikoaren ondorioa da, eta baita Europak bizi duen egoera makurrean, hots, 30. Hamarkadaren egoera zailean. Biurteko aurrerakoian Espainiaren benetako berrikuntza eta arazoek konponketa burutu nahi izan zen, baina eskuineko eta muturreko ezkerreko oposizioak, gehi barneko desadostasunak, gobernua dimititzera eramane zuten. Ondoren zentro-eskuineko gobernua berrikuntzen kontrako politika burutu zuen. Ezkerreko erantzuna ezker aldekoen bateratzea izan zen, 36ko hauteskundeak irabaziz. Momentu horretatik aurrera estatu kolpea prestatzen hasi zen, erritmoa urte horretako egoera sozial liskartsuak areagotu zituelarik.

Laburbilduz "erran daiteke errepublikazale eta sozialisten koalizioak berrikuntzak aurrera eramane zituen ukimen politiko gutxiarekin, kontutan izanik egoera desorekatua eta erradikalizatua zela. Pribilegiatuen klaseek aurrekoa ikustean pentsatu zuten iraultza bat gainera zetorkiela, legearen bidea utzi eta estatu kolpearen alde hasi ziren". Julio Arostegui historialariaren esanetan.

Nazioarteko egoerak ere erabakietan eta gerraren bilakaeran eragin handia izan zuen. Bortizkeria eta erradikalismo aroa da, demokrazien krisia, eta totalitarismoen garaipena (faxismoa eta komunismoa); honengatik Espainiako gerra komunismoa, faxismo eta demokraziaren arteko gerra bezala ulertu zuten, gainera sortu zitekeen II mundu gerraren aitzindaria bezala.

#### GERRAREN EZAUGARRIAK:

1936ko altxamenduak Primo de Riverarengatik ezberdintzen dituen hiru ezaugarri daude:

##### *Aurreneko ezaugarria:*

1. Armadaren barnan unitaterik eza, 2. Nekazari eta langileen erakundeak prest egotea altxaturikoen kontra borrokatzen eta aldi berean iraultza soziala burutzeko asmoz, aurrekoari erantzuteko, 3. Estatuaren oposizioa. Estatu kolpe honek ez da nagusituko baina ez da menperatuko ere, ondorio bezala gerra zibilera darabina Espainia.

Gerraren krudelkeria, gerraren gordinkeria, elkarren arteko gorrotoa, eta kontrakoa akitzeko gogoak (Badajozeko zezen plazan izandako 2000 langileen erailketa edo eta Lleidako elizgizonena, kasu). Dena dela badira elkarren arteko ezberdintasunak. Alderdi nazionalekoek buruturikoa militar edo beraien aliatu zibilek aginduta burutzen dira eta helburu jakin batekin, aurkakoa fisikoki eta animo aldetik garaitzeko. Errepublikak alderdian aldiz Estatu desagertzearen ondorioa izan ziren, arauak hondoratzean.

*Hirugarren arrazoa:*

Alemania, Italia eta Errusia (SESB) parte hartzea, arrazoi ideologiko eta estrategikoak direla eta, aurreko gerretatik ezberdin, gerra totala. Klase sozialen arteko aurkakotasuna, ikuspegi erlijioso, nazionalismoen aurkakotasuna eta demokrazia eta diktaduraren arteko ikuspegi ezberdin agertzen ziren. Nazioz gaindiko parte hartzeak etorkizunean emango den gerraren aitzindariak bihurtuko du, tanke eta hegazkinak, bonbardaturiko hiriak, demokrazien eta komunismoaren arteko elkarkidetzak (nahiz eta aurrekoak parte aktiboa izan ez); bertze aldean faxista potentziak. Mundu gerran parte hartuko duten bi alderdien berria izango delarik.

## GERRAREN GARAPENA

### 1.- GERRAREN HASIERA. ESTATU KOLPETIK GERRA ZIBILERA

Altxamendu militarrek Marokon uztailaren 17an hasi eta penintsulara 18an zabaldu zen. Hiri handienetan porrot egin zuen baina landa munduan eta barrualdeko zenbait hirietan garaile suertatu zen. Estatu kolpeak arrakastatsua izan ez arren, ez da garaitua izango ere, beraz anaien arteko gerra batetara zuzenduko du Espainia. Espainia zonaldeetan bereiztua geldituko da, errekurtsio eta oinarri sozial ezberdinekin nazional eta errepublikazaleen artean.

ZONALDEAK	ERREKURTSOAK	OINARRI SOZIALAK
Estatu kolpearen arrakasta, militarren trebezian baino, eskualdearen ezaugarri sozial eta politikoen arabera izan zen. Garaile izan zen Marokon, irletan, Cadizeko probintzian eta Sevilla, Cordoba eta Granadako hiriburuetan Andaluzian; Caceres, Gaztela eta Leonen; Galizian, Nafarroa eta Araban eta Aragoian. Porrot egin zuen Kantauri aldean Euskal Herrian eta Levante osoan Murtziatik Kataluniara.	Espainia errepublikarra eskualde industrializatuak zituen eta nekazaritza garatuenetarik; meatzaritza, flota eta hegazkinak (nahiz eta mandorik ez izan), Errusiako laguntza eta Espainiako bankuko urre gordekinen. Espainia nazionalak nekazari eskualdeak, armadaren mando gehiengoarekin eta Italia eta Alemaniaren laguntza.	Espainiako populazioaren gehiengoa (Hirugarren Espainia deitutakoa) alderdi bat edo bestera atxikitzea altxamenduaren arrakastaren arabera izan zen, bere eskualdean gertatutakoarekin. Dena den gizarte taldeka bereizketa bat egin daiteke. Oligarkak, lurjabe handiak, armadaren gehiengoa eta elizaren hierarkia, nazionalen alde; langile mugimenduak errepublikaren aldekoa zelarik; klase ertainetan eragin gehiago izan zuen arrakastatsua Extremaduran armadaren zuzendariak eta lurjabe handiek bat egin zuten errepublikazaleen kontrako errepresioan. Nafarroan eta Galizian armada lagundu zutenek nekazari ertain eta txikiak izan ziren, laguntza masiboa izanik. Katalunian CNTk errepublika defendatu zuen, baina Euskal Herrian, ez zen iraultza sozialik egon, eta PNV, nazionalista eta katolikoa, errepublikaren alde agertu zen bere <a href="#">Estatutua</a> baieztatuko zelako (1936ko urrian adostuta).

### 2.- MADRILERAKO BIDEA ETA BERE ERRESISTENTZIA. 1936.eko VIItik 1937.eko

III arte.

Espainia eskualde, errekurtsio eta oinarri sozialetan banaturik zegoela, nazionalen arazo

nagusiena Afrikatik Espainiara bere armada eramatea zen. Hau Alemaniako hegazkinen laguntzarekin eman zen, historiako aurreneko zubi aereoak burutu zelarik.

Honen ondoren [aurrera bidea azkarra](#) izan zen Mendebaldeko Andaluziatik eta Badajozetik;

Molaren iparraldeko tropekin elkartzuz. Hasiera batean Madrilerako zuzendu behar ziren baina Frankok atzeratu zuen Toledo eta bere Alkazarra eskuratzeagatik, benetako erresistentziaren sinboloan bihurtua. Gerraren fase honetan zutabeen gerra nagusituko da. Madrilerako erasoak, 1936ko azarotik aurrera, iparraldetik eta hegoaldetik eman zen, baina errepublikako militarrek, milizia politiko eta sindikalak eta nazioarteko brigadistek Unibertsitate Hirian nazionalak gelditzea lortu zuten, baita Jaraman eta Guadalajaran ere. Bi azkeneko gatazka hauen ondoren errepublikako armada profesionalizatu eta militarizatu da, herri miliziak bere barne hartuz edo eta deseginaz.

3.- NAZIONALISTEN OFENTSIBA HANDIAK. Iparaldean, Hego eta Ekialdean. 1937ko Vetik 1938ko IVra.

Madrileko konkistaren saiakeraren porrota eta gero, Frankok bertze estrategia burutuko du, hiriburua utziz eta bertze fronteetan murgilduz. Kantauri isurialdea konkistatuko du. Ekialdetik Mendebaldera; hots, Gipuzkoa, Bizkaia (hemen populazio zibilaren aurreneko bonbardaketa ematen delarik, Gernika), Santander eta Asturias.

Errepublikarrek erasoari eta presioari aurre egiteko gatazka burutzen dituzte, nazionalen ejertzitua banatzeko eta erne izateko, Kantauriko eskualdeei lasaitasun pittin bat emateko asmoz; Belchite eta Bruneteko gatazka dira. Hauekin ez zen lortu aurreko helburua. Kantauri aldea konkistaturik laster Malaga ere eroriko da nazionalen eskuetan. 1937ko abenduan nazionalak Ekialdera jotzen dute, Aragoiko kanpaina hasiz, 1938ko apirilean Vinarozera iristen direlarik, errepublikaren eskualdea bitan banatuz.

4.- EBRO gatazka eta GERRAREN AMAIERA. 1939ko apirilaren 1 arte.

Egoera ez zen batere ona errepublikarako baina oraindik ere nazioarteko demokraziek laguntza eskainiko zitelako itzaropena zuten, bigarren mundu gerra hastekotan; hortaz erresistentzia burutu behar zen denbora irabazteko. Horrela ulertu behar da Ekialdean aurrera eramango duten ofentsiba handia. Hau izango da gerra zibilaren gatazka handiena, Ebrokoa. Aurrerapauso azkarra eta ausartetan, errepublikarrek bere zutabeen aurrerakada ederra lortu zuten, Kataluniatik Ebroko ibarretara iritsiz. Baina 1938.eko azaroan Municheko konferentzian Europako demokraziak Hitler onartzen segitzen dute, Txekoslovakia eta Errepublika bakarrik utziz. Honen ondoren Frankok kontra erasoak egin zuen eta errepublikarrek atzera jo egin behar izan zuten. Ebroko gatazka galdu eta gero gerraren amaiera gertu zegoen.

Orduan Frankok Kataluniaren kontrako erasoari ekin zion. Lehenik Bartzelonara sartu eta gero Katalunia osoa konkistatu zuen. Otsailean errepublikaren eskualdeak Zentro-Ekialdera mugatzen ziren; Madril-Valecia-Almería hirukia. Martxoan, Negrín errepublikako lehendakaria, komunisten laguntzarekin, gerra aurrera segitzearen aldekoa da; gerra zibila munduko gerrarekin elkartzeko asmoz; Casado jeneralak, Besteiro eta UGTren laguntzarekin, estatu kolpe bat burutuko dute Defentsa Batzorde bat eratuz, Francorekin gerraren amaiera adosteko helburuarekin. (gerra estatu kolpe batekin hasi eta beste batekin amaitu zen). Francok soilik errendizioa onartzen du eta martxoko 28an, nazionalen tropak Madrilen sartuko dira eta ondoren Almerian. Apirilak 1ean Francok gerrako azken parteak sinatu zuen: "En el día de hoy, cautivo y desarmado el ejército rojo, han alcanzado las tropas nacionales sus últimos objetivos militares. Españoles, la guerra ha terminado".